

## EUJENIO AGIRRETXEREKIN SOLASALDITXOA

Liburu honen aurkezpenarako autorea bera aurkeztu nahi izan dugu, baina ez datu biografiko soil eta hotzak tarteko, Eujenio Agirretxe bera elkarrizketatuz baizik, liburu honetan ageri diren kezka eta gai nagusien argigarritzat.

Aldez aurretik hitzordua ipinia daukagu. Prestaturiko galderak eskuratu dizkiot. Beldurtu egin zait hasieran.

– «Galdera horiei guztiei erantzun handirik ematerik ez zaukaat; nire bizia luze zoak eta nire aspaldiko zenbait gauza ahaztu ere egin zaidak», zuritu nahi du bere burua.

\* \* \*

### **Idazle eta hizlari**

“Idazle eta hizlari” definitzen du Eujenio Agirretxe (Errezilen 1920an jaioa) *Euskal Hiztegi Entziklopedikoak*. Eta herritar askok eliz hizlari sutsu eta herri-misioetako misiolari profetiko ezagutu du Eujenio. Beste hainbatek, ordea, kristau-talde eta elkarten suspertzaile eta gidatzaile izan du. Nik neronek fraile gazteon maisu eta bide-irekitzaile eduki nuen. Askok euskal aldizkaritan Eujeniok idatzitako hamaika idazlan irakurria du, entziklopediak aipatzen dituen *Anaitasuna* eta *Goiz Argi* aldizkarietan ezezik *Arantzazu* izenekoan eta bestetan ere ugari idatzi baitu.

– *Idazle eta hizlari definituko al zenuke zeure burua?*

– Entziklopedia horretan halako aipamenik merezi nuenik ez diat nik inondik ere uste, Euskal Herriaren eta euskararen alde nik baino lan handiago eta ederragorik egin duen askotxo aipatu ere egiten ez duelarik. Adibidez, Demetrio Garmendia “Antzi” edo Ignazio Omaetxeberria “Aritzondo”, lehengo belaunaldiko zaharrak gogoratzen hasita, ez ditik aipatzen.

Ni frantziskotar fraide arrunt xamar horietako bat izanik, lan koxkor batzuk egin behar izan ditiat. Ez nauk ikastetxe handitan ibilia. Gasteizen Soziologi pixka bat eta Rikardo Lonbardiren ondoan beste ikastaldi bat Erroman, “Mundu Hobearen”-ren aldeko lan hartan jarduteko neure burua prestatzen alditxo bat egin, eta kito. Nik fraidetxeetatik kanpo ez diat ikasketa handirik egin izan... Autodidakta? Irakurzale eta entzunzale bai behintzat izan nauk.

Entziklopedia horrek aipatzen dituen liburuxkak idazlan koxkorrak dituk; apenas merezi duten aipamenik.

Bestelako neure idazkietan izengoiti askotxo erabili izan diat: Atarre, E.A., Anaia, Egiaundi, etab.).

Hor aipatzen diren aldizkarietara dagokienez, *Goiz Argiko* zuzendaria izan ninduan 1952-60 bitartean eta lankide urte askotan –han idatzitako artikuluek osatzen diate, hain zuzen, liburu hau–. *Anaitasunaren* sorrera, berriz, Euskal Herriko Sekularren Frantziskotar Ordenaren zuzendari nintzenekoa duk. Bederatziren bat urte egin nian ardura horretan –lan hori gaur baino errezagoa zen garaitan–. Elkartea horren buletin gisa sortu genian orduan *Anaitasuna* aldizkari erlijiozkoa, Andoni Sorarrain eta Jose Mari Lete nire lagunei esker. Horren kumea izan zuan geroagoko *Anaitasuna* informazio orokorreko aldizkaria, Bilbon argitaratu zena.

### *Aldi hartan eta Arantzazuren inguruan*

Titulu horixe du Eujenio Agirretzek duela hiru urte eman zigun liburuak, autobiografia modukoa denak. Bertan ematen digu bereziki bere herri-misiolaritzan egindako ibileren eta lanen berri, 1960tik aurrera Euskal Herriko Elizan eta gizartean izan ziren eta berak barru-barrutik bizi izan zituen aldaketak agertzeaz gain. Batek baino gehiagok esana du berak ezagutzen ez zuen Eujenio Agirretxe aurkitu eta miretsi duela liburu horretan..

– *Zer daukazu, Eujenio, esatekorik horrela irakurri dizutenei?*

– Liburutxo horretan nire lehena eta nire oraina nahasturik zeudek. Egon ezina –gaitza ote?– bizi guztian izan diat neurekin. Horren arabera goialdiak eta behealdiak bata bestearen ondoan ibili dituk ni baitan, eta liburutxo hori horrelako gizon mota baten islada dela, garbi zegok. Lehendik gaurrera nire bizitzan etendura handirik dagoenik ez diat uste. Poza eta pozik eza, biak batean zerabiltzaat. Beraz, liburuan ere biak nahasian agertzen zaizkidak.

Zahartzaroaren gailurretik begiratuz gero, nire bizitzak ibilera asko probatu dituela esan behar. Jo hara eta jo hona ibili izan nauk. Hori horrela, ez nauk ekintza bakar bati loturik jardun, ezta nekazari munduari ere, Balentin Zamora apaiz jator haren antzera.

Hala ere han-hemenka ibiliz baserria eta bertako jendea egon duk beti nire kezka nagusien artean. Hori egia duk, eta ez duk harritzekoa izan. Begira oraindik orain zabaldu zaigun notizia: 1982an Hego Euskal Herriak 34.750 nekazari eta aberedun bazitian.

Horiek 1997an, 17.195era jaitsi zituan, EHNEko idazkari orokor den Maite Aristegiren datuen arabera. (Ikus *Egin*, 1998-III-26). Ez al duk hori txit kezagarri?

### **Baserria: Iragana eta etorkizuna**

Liburu berri honen haritik abiatu gara. Aspalditxoko gogoetak, *Goiz-Argi* aldizkarian 1965-75 urteetan idatziak.. Horien ardatz nagusia, baserria; eta baserriko lehiotik gizartea, Euskal Herria, mundua. Euskal baserriaren gainbeherak eta industrializazio bizkorrak baserriarentzat ekarri dituen aldaketa sozial, kultural, etiko eta erlijiozkoek kezkatu dute beti Eujenio Agirretxe; baserriaren krisiak sakonetik ukitu izan du bera.

– *Zein etorkizun dute, Eujenio, baserriak eta baserriarrek 2000.eko Euskal Herrian eta Europan?*

– Iraganeko gogoeta eta oroitzapenik badik liburutxo honek. Bai noski. Baina baita, euskal baserriatik munduari, Herriari, Elizari... eta gizarteari buruz, urte haietan inondik ere bazter ezinak ziren azterketak ere. Gure jende artean modu errazean horrelako azterketak egiteko balioko ahal ditek orrialdeok! Gure etxeoandre eta gizaseme kezkatuen artean elkarrizketan erabiltzeko ikuspuntuak dituk. Gure baserriaren bizialdi hau larria dela sinisten duen euskaldun penatu baten bihozkadak direla ere, esango nitek.

Paulo, hire galdera handi horri erantzun ziorra emateko ni ez nauk gai. Baserriaren aldakuntza izugarria dela argi ikusten diat; telebistaren eragina menperatu ezinezkoa duk; oraingo gurasoek beren haurrak eskolatzeko duten modu berriak, telefonoak, autoak eta beste langailu aurreratuek baserrira dakarten berrikuntza hori guztia txundingarria duk.

Lehengoa ala oraingoa den hobe? Nik ez diat hori erabakiko. Oso ezberdina dela, bai, esan zezakeat. Euskal Herrian diharduten nekazal sindikatuek esango ditek Europa berrian nola moldatu beharko duten egokien gaur egun nekazariak. Nik hauxe bakarrik gogoratuko diat: Gure baserriak eman didan susturik handiena, gure erlijiojera zaharraren bat-bateko desagerpena izan dela. Hau ere agian onerako izan zitezkeek. Mixel Labegerie-ren kanta zetorkidak gogora: «Gauak goizalba duela ondoko, lagun, oroitadi».

### **Elkarrizketa Euskal Herrian**

Bi grina, elkarri lotuta, agertu izan ditu Eujeniok bere apostolutza oparoan eta bere bizitza osoan: kristau-fedea eta Eliza gure gizartean, eta Euskal Herria, beronen arazo handiak, sufrimenduak, zatiketa sozialak eta guzti. Euskaldunon arteko banaketa eta zatiketa mingarri eta antzuak gaudituz, elkarretaratu eta lankidetzarako zubiak eraiki beharra predikatu izan du sarritan. Eta halako batean “zubigile” ezizena ipini zioten.

– *Nola ikusten dituzu gaurko Euskal Herriko zatiketa politiko eta sozialak? Eta zer esango zenuke elkarrizketa sozialaren premiaz gaur?*

– “Zubigile” hitza aipatu duk. Ezizen hori nondik eta nola ezarri zidaten ba al dakik? Ia 30 urte edo badituk honezkerok: Euskaltzaindiak Arantzazun izandako 1968ko Batzar sonatu hartan eta haren ondorioz zenbait euskal idazleren artean, euskara batua zela eta ez zela, zaputz gogortxoak ikusi genituan. Euskara batua onartu nahi ez zutenen bilera bat Loiolan egin huan egun batean, eta han agertu ninduan ni neroni ere, batzarkide haiek gehienak adiskidetsuki lagun nituelako.

Eta batzar hartan nik hitz hauek esan nitian gutxi gora behera: «Jaun-andreok, penagarria da gertatzen ari zaiguna; euskaldunok gutxi izan, euskarazko lanetan gabiltzanok gutxi garela jakin, eta, hala ere, gutxiok elkartu ezinik eta borrokan! Ez al dago hemen elkarrizketazko zubia batzuen eta besteen artean egiterik?». Egun hartatik aurrera nire lagun horietako batzuk “zubigile” deitzen zidaten, eta ez beti oso umore onean. Joanak joan, nire ustez, zubigile on eta askoren beharrean zegok gure Herria: bai euskararen arloan, bai alderdi politikoen artean eta baita eliztarren artean ere.

Elkarrizketak izan behar dik Euskal Herri berriaren eskolako lehenengo ikasgaia, gure belaunaldiari ukatu zitzaiona. Elkarrizketaren eskola hori ez duk erraza, bai ordea behar-beharrezkoa.

### **Liburu honen zazpi atalak**

Sukaldea, Eliza, Herria, Lagunartea, Baserria, Gazteria eta Bakardadea dira liburu honen zazpi atalak; sail horietara bildu ditu Eujeniok garai hartako bere idazlanak. Sail horietako bakoitzeko jendeari mintzatzen zaio liburu honetan.

– *Jende horiek izan al dira zure bizitzako “solaskiderik” nagusienak?*

– Nagusienak? Ez zekiat. Bai nagusienetakoak behintzat, gai honetaz mintzatzeko gogoz biltzen diren taldetxoak benetan itxaropengarri zaizkidak. Eta horrelakoentzat dituk hizketa gai hauek.

Adibidez, sukaldea. Nire iritziz, herriaren zorion iturburua familia duk. Eta familiaren leku garrantzitsuena sukaldea: hantxe ikusi eta ikasi behar baita elkarrizketa, elkar zerbitzea, elkarren berri jakitea eta, batez ere, elkarren maitasunaren pausoak ongi ematen asmatzea.

Sukaldearen hitza eta zernolakotasuna, milaka aldiz irten zaidak nire hitzaldietan. Horregatik aspalditxotik Azpeitia aldean ezarri zidaten izenorde hura: "Aita Sukalde".

Sukaldea esatean, han pilatzen den tresneria ez, han biltzen den etxeke senitartea diat bereziki kontuan hartzen. Eta halako sukalde bihotzekoaren inbidiaz bizi nauk oraindik ere.

\* \* \*

*Eskerrik asko, Eujenio, liburu honetara bildu dizkiguzun kezka eta gogoeta hauengatik.*

Paulo Agirrebaltzategi